

IPARRALDEKO MENDIAK

GIPUZKOA G•20

Izarraitz



Izarraizko mendigunetik, Deba eta Urola ibaien arroen artean kokaturik dagoen mendigunetik, Azkoitia–Azpeitia haraneko paisaia osoa ikusten da. Erliebe handiak dituen kareharrizko azaleratze izugarri baten aurrean gaude eta bertan ekosistema ugari eta desberdinak biltzen dira: harkaitzak, mendi-larreak, era askotako basoak, zuhaixka-eremuak, errekek eta ur-putzuak.

Gure autonomia-erkidegoan hain urriak diren ugaztun handiek elikagaiak bilatzen dituzte espazio honetan. Gaur egun gizakiaren eragin handirik jasaten ez badu ere, Ekain-go pintura bikainek frogatzen dutenez, gune hori aterpea eta ehiza-lekua izan da gizakiarentzat historiaurretik. Paleolitiko garaiko labar-artearen altxor horrek aparteko garrantzia du mundu-mailan.



FIGURA ETA NEURRI BABESLEAK

• IKT (Interes Komunitarioko Tokiak).

LANERAKO GAIK

- Izarraitzen jatorri geologikoa: karst-a, eredu karstikoa.
- Sarraskijale handiak: sai zuria.
- Harkaitzetako espezieak eta komunitateak.
- Artadi kantauriarreko flora eta fauna: baso honek lurzorua mantentzeko duen garrantzia.
- Lurpeko mundua: kobazuloak, leizeak eta iturburuak.
- Paleolitikoko artearen santutegia: Ekain.
- Ingurunearen gaineko eraginak: harrobiak, baso-sailak, gehiegizko artzaintza, lurzoru-galerak.
- Landa-kultura: herri-erromeriak mendietan.
- Kondairak: Mariren Kutxa.
- Landa-turismoa eta landaren garapena: "Izarraitz Bizirik" izeneko proiektua.